(TESTU OFIZIAL OSOA GAZTELANIAZ)

# ESPAINIAKO KONSTITUZIOA (1978)

## ATARIKO TITULUA

### 3. artikulua

1. Gaztelania da Estatuaren espainiar hizkuntza ofiziala. Espainiar guztiek ute gaztelania jakiteko betebeharra eta erabiltzeko eskubidea.
2. Espainiako gainerako hizkuntzak ere ofizialak izango dira, beren autonomia-erkidegoetan, haien estatutuekin ados.
3. Espainia aberatsa izanik mintzaira-moldez, bereziki errespetatu eta zainduko da kultura-ondare hori.

## I. TITULUA
## OINARRIZKO ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK
## BIGARREN KAPITULUA
**Eskubideak eta askatasunak**

LEHEN ATALA

***Oinarrizko eskubideak eta askatasun publikoak***

### 20. artikulua

3. Estatuaren edo zeinahi erakunde publikoren mende dauden hedabideen kasuan, legeak arautuko du haien antolamendua eta dagokien parlamentukontrola, eta orobat bermatuko du komunikabide horietara irispidea izango dutela talde sozial eta politiko esanguratsuek, betiere gizartearen eta Espainiako hizkuntzen aniztasuna errespetatuz.

## VIII. TITULUA
## ESTATUAREN LURRALDE-ANTOLAMENDUA
## HIRUGARREN KAPITULUA
**Autonomia-erkidegoak**

### 148. artikulua

1. Honako gai hauetan hartu ahal izango dituzte eskumenak beren gain autonomia-erkidegoek:

    17) Autonomia-erkidegoaren kultura, ikerketa eta, hala badagokio, hizkuntzaren irakaskuntza sustatzea.